

Sari makina berria

Filmek, zalantzarik ez dago, asko erakusten dute: bizi-tza bezalakoak direlako, esango du batek. Diskuti-garria izan daitekeen arren filmetan agertzen zaigun erreali-tate puskaren benetakotasuna, ezin esan, erreala den puska batetik sortzen ez direnik.

Baina filmetan haina ikasten du batek bazkari edo afarietan. Mahai inguruan jartzen zarela-rik, pertsoniaz inguratzen zara. Bakoitzak bere istorioa dauka.

Eta gehienek, beren istorioa kontatzeko irri-kaz hasten dute oturuntza. Eta zuhurtzia eta elegantzia hain urria den garai honetan, hamaika gidoilariren lan frustratua ezagutze-ko aukera izaten du batek.

Eguno berriak komentatuz hasi genuen bazkari batean egotea gertatu zait oraintsu. Eta batek, nik noizbait aipatu izan dudán euskara-ren gainean aplikatu beharko litzatekeen CRM delakoaren gainean galdetu zidan. Bere buruhaustea ez zen hainbeste nola funtziona-tzen duen jakitea, sistemaren funtsa ulertzea bezainbeste. Funtsa, osterá, norbanakoaren gainean zuzenean lan egiteko aukera izatea eta norbanako bakoitzari neurriá egindako zerbi-tzua eta arreta eskaintzea besterik ez da.

Eta hor hasi zen bazkariak eman zuen gaia.

Hezkuntza Sailak emandako datuak aiereratu zituen batek: Espainian, ikasleen %65ak ez duela batxilergoko titulurik erdiesten. Eta tituluá lortzen duen %35 horretatik, batzuk FPra eta besteak unibertsitatera, %15ak irakurtzen omen du, urtean, ikasketekin zerikusirik ez duen beste libururen bat. Egun daukagun hez-kuntza sistema guztiz anakro-nikoa dela esatera ausartu zen mahaikide bat. European atze-ratuenetarikoa. Ikasle guztien-tzako materia edo gai berberak eta gela guztia batera eramate-ko sistema omen gurea. Eta hainbatetan goraiatzaten dugun talentua deskubritzeko ahalegi-nak egin ordez, atzetik datozen ikasleak integratzeko ahalegin tzarrak egitea omen gure buruhauste nagusia. Mahaikide



DANI BLANCO

Ana Urkiza

Padrón

Agirre

hau, beraz, ikasleen artean bereizketa egitearen aldekoa zen; bakoitzari bere neurriá ikasketak planteatzekoarena.

Bazkarian aurrera, “gauza” sozialari buruz hitz egitera egin genuen jauzi. Eta han, beste batek, aurreko gaiarekin lotura eginez, zera aipatu zuen: gure artean bazirela bi lagun, bata k zorte ikaragarri handia izan duena eta besteak ez. Zortedu-

na, hain zuzen ere, bere garaian batxilergoa bukatzera heldu ez zenetako bat zen. Hark, ikasketak utzi eta berehala aitarekin iturgintzan hastea egin zuen hautu. Besteak, ikasten jarraitzea. Iturginari, babes ofizialeko etxe bat tokatu zitzaion eta berehala hasi ahal izan zuen bere nesk lagunarekin bizitzen. Ikasten jarraitu zuenak, lizentziatura eta ondoko masterra bukatu arte ezin izan zuen neskarekin bizitzen hasi. Iturginak, gaur egun, etxea eta bi kotxe dauzka, eta masterra bukatu zuena, enpresa handi bateko sail baten zuzendaria da. Pozik dago hein batean, halaxe izan zedin ikasi baitzuen. Baina gau asko egiten ditu lorik egin ezinik laneko ardurak direla bide, babes ofizialeko etxerik eskatzeko aukerarik ez du izan, eta hipotekak itota daukalako umeak edukitzeko zain egotea erabaki du bikoteak. Artean, iturginak baino gutxiago irabazten du.

Eta CRMaz galdetu zuenak itsu itsuan bota zuen: “gauza” sozialean ere, multzokoa-ak garela hemen. Denontzat berdín, beti ere, atzeren dagoenari begira. Eta ezetz, ogia aha-legendaren arabera banatu behar dela. Behar-rak denok ditugula. Baina saritu behar dena ahalegina dela. Badela garaia, pausoa eman duenari begiratzekoa. Eman-ten duenari eman duenaren neurriá erantzutekoa.

Norbanako bakoitzari banan-banako arreta eskaini behar zaiola indartuz doan garai honetan, gai hau filma baterako gidoi lez aurkeztea proposatzera ausartuko naiz, norbaitzuek besteen azalean interpretatua ikus dezaten euri hartzea dagozkien eraba-kietarako ideiak. ■



Egun daukagun hezkuntza sistema guztiz anakronikoa dela esatera ausartu zen mahaikide bat. European atzeratuenetarikoa. Ikasle guztientzako materia edo gai berberak eta gela guztia batera eramateko sistema omen gurea

